

# Urtebete teknologia berriei lotuta

Ostegunean, hilak 11, urtebete egingo du eDonostia.net Teknologia Berrien Zentroak. Lehen harria Larratxon jarri zuten arren, gainontzeko auzoetan ere egoitzak irekitzea aurreikusi dute arduradunek.

Testuak: Orreaga Aranburu

Argazkiak: Eli Gorostegi

**T**eknologia berriak hiritarrei hurbiltzeko ireki zuten eDonostia.net, Larratxo pasealekuan dagoen Altza Kultur etxean. *"Proiektua hiri mailakoa da, baina nonbaitetik hasi behar genuen. Hiri digital bat eta hiritar konektatuak lortzeko, jendeari teknologia berriak gerturatzeko ezinbestekoa da. Altza oso gune garrantzitsua da, eta ikerketek erakusten dute teknologia berriak errotu gabe zuzeldela"*, azaldu digu zentroko arduradun Ainhoa Aldasorok.

Duela urtebete ireki zutenean, ez zituzten gaur egungo baliabideak. *"Oinarritzko zerbitzuekin ireki genuen zentroa, eta pixkanaka zerbitzu berriagoak ezarri ditugu. Hala ere, oraindik zenbait gauza jarri eta egokitzea falta zaigu"*, esan digu Aldasorok.

Lehen hilabetean 100 erabiltzailek eman zuten izena eta egun 1.700 inguru dituzte. Erabiltzaileen %80 Alzakoa den arren, ekimena donostiar guztiei zabalik



dagoela azpimarratu du Ainhoa Aldasorok. *"Badakigu batzuentzat zaila izan daitekeela etortzea, urrun gaudelako, baina auzobusez etor daitezke, nahiko ordutegi onak dituzte eta"*.

**Telefono bidezko  
aholkularitza  
zerbitzua  
eskaintzen dute**



## Tailer eta ikastaroak

Teknologia berrietara hurbildu eta erabileran trebatzeko aukera eskaintzen du eDonostia.net-ek. Horretarako hainbat tailer eta ikastaro antolatzen dituzte. Oinarritzko hurbilketa ikastaroak zentroko adituek ematen dituzte. Gai berezitueta-rako, berriz, akademietako irakasleekin akordioak egiten dituztela azaldu digu Sara Narbonak.

8 eta 87 urte bitartekoek erabili dezakete zerbitzua. Jardueren arduradun Sara Narbonaren hitzetan, *"30 urtetik aurrera-*

koak hurbilketa ikastaro eta tailerretara datoz, batez ere. Gazteagoek, berriz, teknologien mundua hobe ezagutzen dutenez, ikastaro zehatzagoak hautatzen dituzte: web orriak, musika sorkuntza...". Bestalde, haur eta adineko jende asko ekipak erabiltzera joaten dira zentrora: ikastaroetan ikasitakoa praktikatzera, edota, besterik gabe, ibiltzera.

Gunearen helburu nagusia teknologia berrien baliagarritasuna erakustea da. "Gauzak modu erraz eta praktikoan erakusten ditugu. Tresnak nola erabiltzen diren erakustez gain, zertarako balio duten erakusten dugu: Excel-ekin etxeko kontuak eramatea, interneten errezetak bilatzea, bidai bat antolatzea... Hau da, teknologia berrien praktikotasuna erakusten dugu."

### Gerturatu, trebatu

Beraz, maila guztietarako eskaintza du eDonostia.net-ek. Maila bakoitzerako, egokitutako aretoak ditu. Ordenagailuak erabiltzeko eta ikastaroetan izena emateko, lehenik bertan eman behar da izena, Info izeneko aretoan.

"Gerturatu" aretoan, nabigatzaile bereziak daude. Narborañaren hitzetan, "beldurra galtzeko" balio du. Pantaila handia eta eserleku berezia dute areto honetako ordenagailuek, eta pertsona ezinduentzako egokituta daude. Bertan, modu errazean, nabigatzen ikas dezakete hasi berriek.

"Laboratu" aretoan, internet mundura hurbiltzeko tailerrak eskaintzen dituzte. "Prestatu" izenekoan, berriz, gai zehatzagoak lantzen dituzte, informatika programak erabiltzea, animazioak eta web orriak sortzea...

"Treatu" gelan aurreko aretoetan ikasitakoa norik bere kabuz praktikan jartzeko ordenagailuak daude. Bertan lanak

egin daitezke, Office programak erabiliz. Bestalde, ordubetz interneten nabigatzeko aukera dago.

Bideo Konferentzia areto bat ere badu Larratxoko eDonostia.net-ek. Honek, hitzaldia ematen diren bitartean munduko beste herrialde batekin bat egiteko aukera ematen du.

### Aholkularitza telefono bidez

Ordenagailuak erabiltzen ikasi eta trebatzeko aukera dago eDonostia.net-en, baina zer gertatzen da etxera joatean? Bätzetan arazoak edo zalantzak sortzen dira etxeko ordenagailuekin programa bat martxan jartzeko zailtasunak, ordenagailua blokeatzea, ez inprimatzea, birusen bat sartzea...



### Euskara hobetu behar

Puntako teknologiak herritarren eskura jarri arren, hobetu beharreko kontu bat dute eDonostia.net-en, euskararen erabilera, hain zuzen. Izan ere, www.edonostia.net web orriaren euskarazko bertsioan eta esku orrian ortografia, lexiko eta gramatika akatsak topatu ditugu. Hona hemen adibide batzuk:

- "Hiritzia"
- "Erabilera hezkuntza" (hizkuntza esateko)
- "Kontu bat gabonei buruz kontatu nahi?" (Gabonetako ipuinak sortzeko tailerren berri emateko)
- "Dohaineko lantegiak" (dohainik edo doakoak diren tailerrez arki da)

Hamaika dira, etxera iritsi eta ordenagailu aurrean jartzekoan sor daitezkeen zalantzak. Horiek argitzeko, aholkularitza zerbitzua du teknologia berrien guneak. Edozein zalantza izanez gero, 902 07 78 00 telefonora deitu eta bertako adituak laguntzen saiatuko dira.

### Eguberri digitalak

Urtea amaitzeko, familia osoarentzako bi erakusketak antolatu dituzte. Batean, 10 eta 11 urteko haurrek egindako ipuin digitalak egongo dira, ikusgai, eta bestean, digitalizatutako Altzako argazkiak.

Izan ere, ipuin digitalen lehaketa antolatu dute haurrentzat. Bertan, narrazio gintza lantze



